Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 28. artikuluan adierazitakoaren arabera, espedientean jasotako memorian justifikatu egiten dira erakundearen helburuak, kontratuaren bidez bete nahi diren administrazio-premien izaera eta hedadura, haiei erantzuteko kontratuaren xedearen eta edukiaren egokitasuna, eta kontuan hartutako bestelako faktoreak ere.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Udalekuak 2022ko uztailaren 1etik uztailaren 15era, astelehenetik ostiralera, izango dira, jaiegunetan izan ezik.

Kontratuak urtebeteko iraupena izango du sinatzen denetik, eta urtero bi aldiz luzatu ahal izango da.

Luzapenak kontratazio-organoak erabakiko ditu, eta enpresaburuarentzat nahitaezkoak izango dira, baldin eta kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago jakinarazten badira, kontratua arautzen duen agirian epe luzeagoa ezartzen ez bada behintzat.

3.- KONTRATUAREN IZAERA ETA MOTA, ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua 9/2017 Legearen 159. artikuluan araututako prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleituko da.

Kontratua honako hauek eraenduko dute:

a) Baldintza-agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian jasotako klausulak.

b) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

c) Indargabetu gabe dagoen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

d) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agiri honen eta kontratazio-espedientean jasotako gainerako dokumentazioaren artean kontraesanik egonez gero, Agiri honek izango du lehentasuna, gai teknikoetan izan ezik, horietan Baldintza Teknikoen Agiriak arautuko baitu beti.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak du eskumena kontratu honen inguruan sor daitezkeen arazoez arduratzeko.

4.A.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA (eskaintzek ezin dituzte adierazitako guztizko zenbatekoak gainditu)

Kontratu hau gauzatzeko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (aurrekontuaren muga) 25.000 eurokoa da (22.727,27 euro gehi % 10eko BEZa).

Eskaintzaileek zenbateko hori hobetu ahal izango dute. Inola ere ez da ordainduko baldintza-agiri honen xede den prestazioari dagokiona baino kopuru handiagoa. Eskaintzaren zenbatekoan sartuko dira zerbitzua emateak eragindako gastu guztiak (langileen soldatak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio-kostuak, langileen dietak, material inbentariaezina, irteeren gastuak, janaria...).

Edozein arrazoi dela medio, kontratuaren xede den zerbitzua osorik ematen ez bada, eskaintza esleipendunaren prezioa proportzionalki murriztuko da.

4.B.- BALIO ZENBATETSIA

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ kenduta): 22.727,27 €
Luzapenak (BEZ kenduta): 45.454,54 €
GUZTIRA (BEZ kenduta): 68.181.81

Esleipendunak ez badu BEZa ordaindu behar, behar bezala justifikatu beharko du. Nolanahi ere, BEZa ordaindu behar bazaio, guztizko prezioa (BEZa barne) eta BEZari dagokion zenbatekoa xehatu beharko dira.

5.- FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa udal-aurrekontuaren kontura finantzatuko dela aurreikusten da.

Partida: 3370-22606 Gazteria Proiektua.

6.- ORDAINTZEKO MODUA

Kontratua urtero ordainduko da, honela:

- Lehenengo ordainketa, esleipen-prezioaren % 20koa, udalekuak antolatu eta gauzatzeko lanei dagokiena, hauek amaitutakoan ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu ondoren.
- Bigarren ordainketa, udalekuen kudeaketari dagokiona, esleipen-prezioaren %80 izango da. Zenbateko hori jasotzeko, kontratuko betebehar guztiak bete beharko dira, eta gastuen likidazioa eta horien egiaztagiriak aurkeztu, programari eta jardueren balorazioari buruzko informazioa jasotzen duen txostenarekin batera.

7.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

Eskaintza bat aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintza-agiri honetan jasotako klausulak baldintzarik gabe onartzea, bai eta Administrazioarekin kontratatzeko beharrezko baldintza guztiak betetzen dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena ere.

Eskaintza aurkezteko lotura: https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/

Harremana eta gorabeherak: https://www.contratacion.euskadi.eus/contacto-incidencias-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/

Eskuliburuak: https://www.contratacion.euskadi.eus/materiales-didacticos-formacion/w32-kpeform/es/

8.- BERMEAK

Behin-behineko bermea. Ez dagokio
Behin betiko bermea. Kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren % 5 (BEZ kenduta)

9. KONTRATUAREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Zerbitzua euskaraz eskaini beharko da.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin duten harremana kontuan hartuta, enpresa esleipenduneko langileek zerbitzua euskaraz emateko adinako euskara-maila bermatu beharko dute.

EAEko hizkuntza ofizialei dagokienez, betebehar hauek zehazten dira:

9.1. Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, abisuak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma baten bidez egingo dira, euskarazko azalpen-mezu batekin batera.

Piktogramen bidez egitea ezinezkoa denean, euskaraz egingo dira mezuak, ezagunak eta ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak posible ez direnean, bi hizkuntzetan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez, aldez aurretik Administrazioarekin adostuta.

9.2. Erabilera herritarrekin:

Zerbitzuaren erabiltzaileei arreta eta erantzuna emateko, administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza-baldintza berak beteko dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideen arabera, herritarrekiko ahozko komunikazioa (hasierako arreta, telefono bidezkoa, erantzungailua, aurrez aurrekoa, megafonia, bilerak, etab.) euskaraz egingo da.

Halaber, jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako beste dokumentu batzuk) euskaraz egingo dira. Herritar batek hala eskatzen duenean, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

Kontratatutako enpresak zerbitzua emateko erabilitako euskarazko testuak zuzenak eta egokiak direla bermatu beharko du. Horretarako, testu zabal eta/edo errepikakorrak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzenak diren egiaztatzeko; zuzenak ez badira, enpresa esleipendunari zuzentzeko eskatuko zaio.

9.3. Erabilera administrazioarekin:

Enpresa esleipendunak euskaraz sortu beharko ditu kontratatzailearekin zerikusia duten idatzizko komunikazio guztiak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak ...).

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharrak dira; beraz, baldintza horiek betetzen ez badira, Udalak kontratua eten ahal izango du, indarreko legerian ezarritako baldintzetan.

10.- KONTRATAZIO ORGANOA

Zerbitzu horren kontratazioa Alkatetzak esleituko du, dekretu bidez.

II.- KONTRATAZIO PROZEDURA

11.- ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratu hau azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159. artikuluan ezarritakoaren arabera esleituko da.

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak baldintza-agiri teknikoetan aurreikusitakoak dira.

12.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, baldin eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen badute eta 9/2017 Legearen 65. artikuluan ezarritako ezintasun edo bateraezintasunen bat ez badute. Kaudimena 13. klausulako e) eta f) letretan ezarritako bideen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta egin dezakete, horretarako emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridiko baten izenean bertako kideren bat agertzen bada, horretarako ahalmena duela egiaztatu beharko du agiri bidez. Bai kasu batean, bai bestean, ordezkariari kontratatzeko ezgaitasun horiek eragingo diote.
Halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko da.

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten heinean, kontratatutako enpresako langileek zerbitzua euskaraz emateko adinako euskara-maila izan beharko dute.

13. ESKAINTZAK AURKEZTEA

Prozedura honetan parte hartzeko proposamenak kontratatzailearen profilean argitaratu eta 15 egun naturaleko epean aurkeztuko dira.

Lizitazio honek eskaintza bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztea onartzen du.

- Eskaintza aurkezteko lotura: https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/
- Harremana eta gorabeherak: https://www.contratacion.euskadi.eus/contacto-incidencias-licitacion-electronica/w32-kpelicel/es/
- Eskuliburuak: https://www.contratacion.euskadi.eus/materiales-didacticos-formacion/w32-kpeform/es/

Eskaintza horiek 2 gutun-azal itxitan aurkeztuko dira.

1. GUTUN-AZALA: UDALEKU IREKIAK ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKAINTZA, ondorengo agiriak izango ditu:

a) Parte hartzen duen pertsonaren edo bere ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean jarduten bada, notario-ahalordea aurkeztu beharko da

b) Eskaintza pertsona juridiko batek egiten duenean, eraketa- edo aldaketa-eskritura, behar bezala inskribatua, Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakiarekin, inskripzioa aplikagarri zaion merkataritza-legeriaren arabera nahitaezkoa denean. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sortze-egintza aurkeztu beharko da, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituena, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburuen kasuan, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera, edo, bestela, zinpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

c) Eskaintza aurkezten duen pertsona atzerritarra bada, 159.4.c artikulua betetzearen erantzukizunpeko adierazpena

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (zehazki, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean) alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria. Horretarako, alta aurkeztu beharko du, uneko ekitaldikoa bada, edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Bi kasuetan, zerga horren matrikulan baja eman ez duela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

e) Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren egiaztagiriak:

- Finantza-erakundeen adierazpenak edo, hala badagokio, lanbide-arriskuengatiko erantzukizun zibileko aseguruaren egiaztagiria, 600.000 eurokoa.

f) Kaudimen teknikoaren eta profesionalaren egiaztagiriak:

- Azken hiru urteetan, gutxienez bi urteko esperientzia izatea kontratuaren eremuan, hau da, udalekuak kudeatzeko zerbitzuan. Jasotzailea sektore publikoko erakunde bat bada, eskudun organoak bisatutako edo emandako agirien bitartez egiaztatu beharko dira egindako zerbitzuak; jasotzailea arlo pribatuko subjektua bada, berriz, hark emandako ziurtagirien bidez. Egindako zerbitzuen egiaztapenean, zerbitzuen zenbatekoa, datak eta zein erakunde kontratatzaile publiko edo pribaturentzat ziren adierazi beharko da. Ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren

beraren adierazpen baten bidez egiaztatuko da, prestazioa egin dela egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

g) Aipatutako legearen 159.4, c artikuluak ezartzen duen bezala, jardueran aritzeko behar diren baimenak lortu dituela, dagokion sailkapena agertuz.

*Oharra: a) -g) idatz-zatiko dokumentazioa hasieratik aurkeztu beharrean, lizitatzaileak adierazpen bat egin ahal izango du, beharrezko gaitasuna eta kaudimena betetzen dituela egiaztatzen duena. Horretarako, I. eranskinean adierazten den eredua bete beharko du, Administrazioarekin kontratuak egiteko legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazten duena. Esleipen-proposamena egiten denean, irabazleak adierazpenean adierazitakoa justifikatu beharko du kontratazio-organoaren aurrean, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu beharko ditu esleipena egin aurretik.

Era berean, aurreko a), b), e) eta f) hizkietan adierazitako egoerak Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahal izango dira, 159. artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, ziurtagiri horrekin batera eskaintzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan jasoko da ziurtagirian agertzen diren inguruabarrak ez direla aldatu.

Aurkeztutako dokumentuak jatorrizkoak edo Administrazioak edo notarioak konpultsatu edo kautotutako kopiak izan daitezke.

h) Memoria (baldintza-agiri teknikoen 6. klausulako edukiarekin).

1. **2. GUTUN-AZALA**: UDALEKU IREKIAK ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO ESKAINTZA, 2. GUTUN-AZALA, ondorengo agiriak izango ditu:
   a) Eskaintza ekonomikoa, eredu honen araberakoa: (III. Eranskina)

14.-PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak **1. gutun-azalaren** dokumentazioa ireki eta kalifikatuko du, behar den epean eta moduan.

Mahaiak konpon daitezkeen akatsak edo omisioak ikusten baditu aurkeztutako dokumentazioan, alderdi interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez ere 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzentzeko. Era

berean, mahaiak dokumentazio osagarria edo argigarria eskatu ahal izango die lizitatzaileei, eta 5 egun naturaleko epea emango die aurkezteko.

Azkenik, kontratazio-mahaiak zehaztuko du zein lizitatzaile onartu diren lizitazioan, zein baztertu diren eta zergatik.

Ondoren, ekitaldi publikoan irekiko da **2. gutun-azala**.

Gutun-azala jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren hasieran mahaiak berariazko adierazpen bat egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziorako onartu direnak eta lizitaziotik kanpo utzi direnak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.

Ondoren, ebaluatuko diren irizpideen emaitzak ezagutzera emango dira balio-judizioen bidez.

Ondoren, kontratazio-mahaiak eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu, eta baldintza-agiri hauetan adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

Azkenik, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari helaraziko dio esleipen-proposamena.

15 - ESLEITZEA

Kontratazio-organoak esleipena egingo du, ondoren adierazten den dokumentazioarekin batera.

Esleipendunari jakinarazi beharko zaio, bost egun balioduneko epean, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, honako jarduketa hauek egin beharko dituela:

- Lizitatzaileak, hasiera batean administrazio-agiriak aurkeztu beharrean, 13. klausulan (I. eranskina, Administrazioarekin kontratuak egiteko legez eskatzen diren baldintzak betetzen dituela adierazten duena) ezarritako oharrean zehazten den adierazpena aurkeztu badu, une horretan aurkeztu beharko ditu adierazpenean adierazitakoa betetzen duela egiaztatzen duten egiaztagiriak, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu beharko ditu (13. klausulako a, b, c, d, e, f eta g hizkiak).

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak likidatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea, proposamenarekin aurkeztu ez bada, eta, hala badagokio, kontratua gauzatzeko konprometitutako baliabideak badaudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

- Uneko ekitaldiari edo azken ordainagiriari dagokion ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotea, zerga horren matrikulan baja eman ez zaiola egiaztatzen duen aitorpenarekin batera, betiere aurretik aurkeztu ez bada.

- Erantzukizun Zibileko Aseguruaren Poliza Ziurtagiriaren kopia, 600,000 euroko estaldura ematen duena pertsonei edo instalazioei kontratua exekutatu bitartean eragin dakiekeen edozein kalterengatik (heriotza barne).

Baldin eta kontratua ez bada adierazitako epean esleitzen errekerimendua behar bezala ez betetzeagatik, beste deialdi bat egin aurretik, Administrazioak beste esleipen bat egin ahal izango du lehenengoaren atzetik datorren lizitatzailearen edo lizitatzaileen alde, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera, baldin eta onartzen bada eta esleipendun berriak ontzat ematen badu. Kasu horretan, hamar egun balioduneko epea emango zaio esleipendun berriari, lehen adierazitakoa bete dezan.

Aurkeztutako eskaintzak, onartutakoak zein ireki gabe baztertutakoak edo ireki ondoren baztertutakoak, bere espedientean artxibatuko dira. Behin kontratua esleitutakoan, errekurtsoak jartzeko epea irekiko da. Epe hori igaro eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, proposamenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura jarriko da.

Interesdunen esku jarri eta hilabeteko (l) epean inork ez badu dokumentazio hori jasotzen, Administrazioak erabaki ahal izango du pertsona edo enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea.

Kontratua lizitazio-baldintzetara zorrotz egokitzen den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta udalari aurkeztu beharko zaio.

16. KONTRATAZIOI-MAHAIA

Kontratazio-mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskuduna, eta SPKLren 326.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du.

Kontratazio-mahaiak kide hauek izango ditu:

- Orozkoko alkatea (lehendakaria).
- Orozkoko udal arkitekto teknikoa.
- Orozkoko udal ekonomialaria
- Orozkoko udal kontu-hartzailea.
- Idazkari lanetan: Administraria

17.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatuko da, esleipena jakinarazi eta gehienez ere hamar egun balioduneko epean. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Hala ere, kontratua eskritura publikoan jasotzeko eskatu ahal izango du kontratistak, eta dagozkion gastuak kontratistak ordainduko ditu.

Kontratua formalizatzean burutuko da.

18.- KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratistak gauzatuko du kontratua, eta ez da azpikontrataziorik onartuko.

Kontratua Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko du, eta idatziz zein ahoz erabiliko ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren mendeko pertsonei egotz dakizkiekeen egite edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen bada, Administrazioak kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du.

19.- KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratatzen duen pertsonak lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete beharko ditu, eta Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango ez-betetze horrengatik.

Bereziki, lan- eta soldata-baldintza duinak bermatu beharko ditu kontratua gauzatzeko kontratatzen dituen langileentzat.

20.- PERTSONA KONTRATATZAILEAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEI DAGOKIENEZ

Kontratua gauzatzeko behar diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren erantzulea kontratatzailea izango da.

Berme horrek kontratuari datxezkion arriskuak estaliko ditu, eta, bereziki, erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua), hirugarrenei eragindako kalteengatik eta esleipendunaren langileen eta makinen mendekoen ekintzen ondorioz, bai eta kontratuaren xede den zerbitzua ematen den bitartean egindako lanen ondorioz ere.

21.- KONTRATUA ALDATZEA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 203. artikuluaren eta hurrengoen arabera, Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, legez aurreikusitako kasuetan eta moduan.

22.- KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK, KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

A/ KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutu egin bada kontratua gauzatzeko epea betetzeari dagokionez, bai epe osoan, bai epe partzialetan, Administrazioak aukeran izango du, edo kontratua suntsiaraztea, bermea galduta, edo zigorrak ezartzea egunero, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko proportzioan.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du, edo kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko.

B/ PRESTAZIOEN GAUZATZE PARTZIALA

Baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, ez badu kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala betetzen, administrazioak bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsiarazi, edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko zigorra ezarri.

Prestazioa behar bezala betetzen ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra ezarri ahal izango du.

Legez ezarritako prozeduraren bidez eratutako bermearen gainean ordainduko dira isun horiek, eta erakunde kontratistak fidantza osatu beharko du, betiere fidantzaren zati bat ateratzen bada isunak ordaintzeko.

C/ HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

Enpresa esleipendunak kontratu honetan aurreikusitako hizkuntza-betebeharrak betetzen ez baditu, 100 € arteko zehapenak ezarriko dira betebeharrak ez betetzeagatik.

Hizkuntza-ez-betetzerik antzemanez gero, eskumena duen zinegotziak zehapen-proposamen bat idatziko du, eta enpresa esleipendunari helaraziko dio, egokitzat jotzen duena alega dezan 5 egun naturaleko epean. Epea amaitutakoan, eskumena duen zinegotziak ebazpen arrazoitua emango du.

23.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu-kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira SPKLren 211. artikuluan ezarritakoak, 212. eta 213. artikuluetan adierazitako baldintzetan eta ondorioekin.

24.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatzeko, kontratua betetzeak sor ditzakeen zalantzak ebazteko, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzeko, kontratua suntsiarazteko eta suntsiaraztearen ondorioak zehazteko eskumenak, betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta bertan ezarritako betekizunei eta ondorioei lotuta.

25.- ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

Kontratazio honi buruzko ebazpenek eta izapide-egintzek, baldin eta azken horiek zuzenean edo zeharka gaiaren mamiaz erabakitzen badute, prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna sortzen badute, defentsa-gabezia edo legezko eskubide eta interesei kalte konponezina eragiten badiete, aukeran izango dute administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean arautua, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Gainerako izapide-egintzen aurka daudela alegatu ahal izango dute interesdunek, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean kontuan har daitezen.

26.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legeari eta hura garatzen duen araudiari dagokienez.

ERANSKINAK

I. Eranskina
Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua

[Pertsona fisikoa edo juridikoa denean]

..... jaun/andrea, adinez nagusia, honako helbidea duena: ..... NAN zenb.: .....[Tel: ------.....], adierazten du Administrazio Publikoarekin kontratuak egiteko ahalmena duela, jarduteko gaitasun osoa baitu, eta ez dagoela 9/2017 Legearen 65. artikuluan aurreikusitako ezein egoeratan.

Era berean, adierazten du

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 13. eta 14. artikuluetan (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua) ezarritako irismenarekin.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela baja eman zerga horren matrikulan.

- Baldintza-agiri hauetan eta aplikatu beharreko araudian aurreikusitako gainerako baldintzak betetzen dituela.

Esleipenduna izanez gero, BAI/EZ dio berariazko baimena ematen administrazio publiko kontratatzaileari, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa laga ahal izateko.

_____ [Tokia, data eta sinadura]

[Sozietate edo persona juridikoa denean]

..... jaun/andrea, adinez nagusia, honako helbidea duena: ..... NAN zenb.: .....[Tel: ------.....], adierazten du berak eta ordezkatzen duen enpresak Administrazio Publikoarekin kontratuak egiteko ahalmena dutela, jarduteko gaitasun osoa baitu, eta ez dagoela 9/2017 Legearen 65. artikuluan aurreikusitako ezein egoeratan.

Era berean, adierazten du

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 13. eta 14. artikuluetan (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua) ezarritako irismenarekin.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela baja eman zerga horren matrikulan.

- Baldintza-agiri hauetan eta aplikatu beharreko araudian aurreikusitako gainerako baldintzak betetzen dituela.

Esleipenduna izanez gero, BAI/EZ dio berariazko baimena ematen administrazio publiko kontratatzaileari, Bizkaiko Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen informazioa laga ahal izateko.

_____ [Tokia, data eta sinadura]

III

Eskaintza ekonomikoa

..... jaun/andreak, PK: ..... NAN zenb.: ..... Telefonoa:..... eta helbide elektronikoa:..... dituenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoan, bere izenean edo honen ordezkaritzan: ..... Helbidea: ..... PK:....., telefonoa: ..... eta NAN edo IFK (persona fisikoa edo juridikoa den) zenb.: ....., prozedura ireki sinplifikatuaren bidezko kontratazioan parte hartuz, adierazten dut:

a) Konpromisoa hartzen dudala urtean ..... €-ko prezioan exekutatzeko (gehi ..... €, hala badagokio, BEZari dagozkionak). Prezioan kontzeptu guztiak sartuta daudela ulertu behar da, zergak, gastuak, tasak eta edozein arlo fiskaleko arielak barne, bai eta kontratistaren mozkin industriala ere.

b) Administrazio klausula berezien agiria, baldintza teknikoen agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak ezagutzen ditudala, eta horiek guztiak nire gain hartzen ditudala eta men egiten diedala.

c) Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela enpresa ireki, instalatu eta jardunean jartzeko.

.....n, 20....ko.....aren ....ean

Sinadura